

# Nafarkaria

• ostirala • 1998ko apirilaren 24a

**Egunkaria**


Gehigarri honetan



**Iruñea** • Karrikiri elkarteak Iruñerriko euskaltegietako ikasleak jokoan jarriko ditu.

**Manu Arrastia** • «Gobernuak ez du egiten baso-politika egokirik».

• Luis AZANZA



# Amiamoko zuriak nonahi

Amiamoko zuriaren populazioak nabarmen egin du gora azken urteotan Nafarroan. 1996an 154 bikote ziren, eta egun badira 249. 80ko hamarkadan desagertzeaz egon bazen ere, amiamokoa gero eta ugariago da gure eraikinik garaienetan.



# Iruñea • 'Ezetz asmatu': ikasleak euskaraz janzteko lehiaketa

Karrikiri Elkarteak antolatu du Iruñerriko euskaltegien arteko joko hau

**Karrikiri Elkarteak, Euskalerria Irratiaren laguntzarekin, Ezetz asmatu lehiaketa antolatu du Iruñerriko euskaltegien artean. Ikasleen arteko harremanak bultzatu nahi ditu euskara ez den beste esparru batzuetan ere.**



Irakasleak lehiaketa prestatzen diardute egunotan.  
JOXE LACALLE

**E**USKARA, EUSKALTEGIAN EZ EZIK, eguneroko bizitzaren beste edozein esparrutan ere suelto erabil dezaketela frogatzeko aukera eskainiko die *Ezetz asmatu* lehiaketak Iruñerrian euskaraz ikasten ari diren helduei. Norgehiagokan parte hartuko dute AEK-ko, IKAKo, Miluzeko, Nafarroako Hizkuntz Eskolako, Gobernu Funtzionarien Euskaltegiko eta IBiko (birziklatzen ari diren administrazio irakasleak) ikasleak. Guztira 65 talde ariko dira nor baino nor.

Lehiaketa heldu den asteartean hasiko da, hilak 28, eta hiru kanporaketa izanen ditu. Lehenengo kanporaketa apirilaren

azkenengo astean egingen da, bigarrena maiatzaren lehenengo astean eta hirugarrena hilabetearen bigarren astean. Finalera pasatzen direnek maiatzaren 29an ikusiko dute elkar. Orduan egingen da Iruñerriko euskaltegien artean treheena zein suertatu den erabakitze lehiaketaren finala.

Norgehiagoka Iruñeko Alde Zaharreko Mañueta frontoian egingen da, festa giroan. *Ezetz asmatu* lehiaketako finalaren ondotik, Modesto akordeoi jole arantzarrak eta Jarauta 69 txarangak alaituko dute giroa.

## Bi-hiru talde partidako

Lehiaketa partidaka izanen da, eta partida bakoitzean bi-hiru talde lehiatuko dira. Talde bakoitzak hiru lehiakide izanen ditu eta partida bi zatitan banatuko da. Lehenengo partean bost gai ezberdinen inguruko galderak egingen zaizkie parte hartzaileei: Historia, geografia, kultura, Iruñea eta gaur egungo gaiak, hain zuzen ere. Bigarren partean, berriz, Euskalerria Irratiak prestatutako entzumen frogak izanen dituzte. Lehiakideek belarria findu eta adi egon beharko dute irratikoek prestatutako entzu-

men saioetan. Taldeko bina galdera egingen dira eta azkar igaroko dira. Partidak datozen hiru asteetako astearte, asteazken eta ostegunetan izanen dira finalera iritsi arte. Maiatzaren 29an jokatuko da finala, eta hartara zortzi talde pasatuko dira. Irabazleentzako zein bigarrenentzako saria izanen da. Garaileek Artza jatetxean afaltzeko sei lagunendako gonbita jasoko dute, eta bigarren gelditzen direnek ere beste sei lagunendako afarria izanen dute Catachu jatetxean.

→ Irene Arrizurieta

## Bera

**Pilota-goxo txapelketa antolatu du Gure Txokoa Elkarteak**

GURE TXOKOA ELKARTEKO PILOTA sailak, Bortziritako jende guztiari irekitako lehendabiziko pilota-goxo txapelketa herrikoia antolatu du. Maiatzan jokatuko da, eta federatua ez dagoen edozeinek parte har dezake.

Txapelketa bikoteka jokatuko da, eta partidu guztiak Eztegara pilotalekuan izanen dira. Bi maila bereziko dira jokalarien artean, jokalariek eurek aukeratu-ta. Hala, trebetasun mailaren arabera bi talde egingen dira, eta talde bakoitzeko bikote guztiak elkarren artean jokatuko beharko dute, partidu bat baino gehiago joka dezaten. Parte hartzaile anitz balego, aldiz, taldekatu jokatuko litzateke. Joko sistema, beraz, parte hartzaile kopuruaren arabera izanen da.

Txapelketa honen bidez, edozein herritarrek pilotan jokatzea lortu nahi dute antolatzaileek. Horregatik egin dute pilota gurien alde. Txapelketa osoa maiatzean egin nahi dute, baina, arestian aipatu bezala, jokalaria kopuruak finalaren eguna gibelatu dezake. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute Berako Zizka, Errekalde eta Pui ostatuetan. Izen emateagatik 1.000 pezeta ordaindu beharko dira, eta epea txapelketa hasi bitartekoa izanen da.

→ Jon Abril

## mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



**i**ruindarren artean askotan aipatzen da herria. Hemen bizi den edonork aukera asko ditu «herrian izan naiz», «herria joatekoa naiz» edo antzeko zerbait entzuteko. Herria, horrela, zehaztu gabe gehienetan, izena ez aipatzearen misterioak hirien ustetako kategoria bera emanen balio bezala.

Frogatua daukat horrela mintzo direnak erdaldu-nak izaten direla gehienbat, eta beren herriak hiriburutik hegoaldera edo ekialdera egoten direla. Euskaldunak, iparretik heldu denak oro har, ez dakit zergatik, herriaren izena esateko joera izan ohi du.

Herri horrek ez du zertan izan mintzatu denaren sorlekua, baina, hori bai, maiz askotan familiaren iraganari eta, neurri txikiagoan, orainari lotua egoten da.

Zer eskaintzen ote diote herriek asteburu eta oporraldiko bisitari horri? Askori seguruaski sosegua, beste batzuei erro ahantzien isla urruna eta

## TX

aintzinako bizimoduaren nostalgia pozoinduan murgiltzeko proportzioa, gehienei txerri puska, barazkiak eta kontserba poteak. Ez da gutxi. Badira konklusioak ateratzeko orduan urrunago joaten ausartu direnak ere. Mario Gabiriaren iritziz joan-etorri hauek dira nafarren ongizatearen erakusle.

Bada, beraz, behin eta berriz itzultzeko arrazoirik. Areago, Iruñean oso estimatua da arlote arimako hiritarra. Apologiak ere entzun izan ditut: «Kasu, ni herri batean sortu nintzen, eta zer?». Oraindik ustelkeriatik aparte sentitzen denaren harrotasuna dago hor. Herriak, urrundik begiratzen dionaren irudirako, badu halako garbitasun konparaezina, eta herriko airea amasten duenak bide zuzena erakusten dion argia ikusten du, txorakeriak utzi eta bizitzaren esentziaz gozatzea deliberatzen du.

Jakina, gauza hauek ikusita, herria jaino eta hazi diren batzuk zer egin ez dakitela, babesgabe eta in-

guruari edo lurra arraildu behar lukeen erro sakonari begira geratzen dira askotan. Horieta batak ez dute parekorik irtenbide azkarrak asmatzeko orduan. Hortxe egonen dira beti ikurrak.

Adibideak ausarki: Txantrea, eman dezagun. Aspaldi aienatu zen hango barrikadetako kea, eta istiluetan ibilitako haiek ere aitontzen hasiak dira dagoeneko. Ospeak bizirik dirau, ordea: auzo jatorra. Soilik auzoa? Aski. Txantrearra zara, autoa duzu eta gauzak garbi uzteko tenorea heldu dela erabaki duzu. E?: Inperioa. EH?: ez da nahikoa. Ez da dudarik: TX. Alfa eta omega.

Pegatinaren aldean irtenbide hobeak direlakoan nago, baina txistularismoak denbora gutxiago eskatzen du eta emaitzak azkar nabarmentzen dira. Benito Lertxundik eta orkestra sinfoniko batek himno polita egingen lukete. Lo jarraitzeko espeziala.





ur dai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

**Libeloari buruz (II)**

Gure Zesarri, Matia Mugikus Incitatorri, kristauen kontrako Joku paregabeak antolatzea otu zitzaion eta itxaropentsu Coliseum-era neu ere hurbildu nintzen, nire adiskide Cornelio eta Erromako Herri guztiarekin batera, behar-beharrezko garbiketa hura ikusteko irrikitan.

Jupiter Jainkoaren ondoan eseri diren zurginez ari naiz. Gauza bat kanpoko Jainkoekin esku zabal izatea da eta beste bat, arras diferentea, zurginen semeak ere jainkotu nahi nardagarri eta arbuigarri hori. Erliijoaren kalitateaz ari gara noski. Ekitaldia nola burutu zen ez dago zertan zehazterik ordea. Denek badakizue ze inpresio txarra eman zigun. Zein hutsala eta farregarria izan zen. Zurez eta lastoz egindako eskultura hura nola atera zuten eta nola «Bainan ze memelokeria da hau!» ohikatu zuen Erromako Herriak. Cornelio segituan ulertu zuen- «Alegoria bat da!». Ala Hercules! hau lotsa! Giritinoen orde z «kristautasuna» ordezkatu nahi zuen alegoria hura atera eta probintzietatik espreski ekarritako bi legioek ezpataz eraso ez zuten ba! Deuseztu arte ordu erdi aspergarri bat eman zuten legionariek, haiek ere lotsatuta, eta gero hondakinei sua eman zieten... eta akabo. Akabo. Akabo!

Orduan Cornelio altxatu zen eta bere Senatorearen togari dago-kion agintearekin Zesar berari zuzendu zizkion dagoeneko brontzezkoak bihurtu diren hitz haiek: «Zesar, ez gara erraz engainatu daitezkeen barbaroen antzekoak, ez eta goizean leihoetan pausatzen diren usoak bezain tontoak. Erromako Herria gara gu eta hildako kristauak banan-banan zenbatzera etorri gara. Non daude ordea? Non dago Pablo? Ezequias? Miqueo? Non dago nire esklabuei kalitate eskaxeko erlijioa eman zien hark? Ez ditut ikusten Zesar. Nire itxaropenean bai, han zeuden, bere gaztigua jaso behar zuten gizaseme zehatzak. Non daude Zesar? Ez ditut ikusten Zesar. Alegoria orokor hauek ez gaituzte asetzen. Izenak Zesar, izenak! Zerrenda bat! Non daude Jupiter Jainkoarekin parekatu nahi diren zurginek! Jonas! Ismael! Ez ditut ikusten Zesar. Lasto errea airean doa eta erromatar zintzo honen begiek ez dute odoliki ikusi. Zesar, non daude?».

«Errepikapen astunegia» - esan zuten batzuek, baina, hala eta guztiz ere, *Caesar ubi sunt?* Hori famatu egin da modu ikaragarrian, eta beldurrez izen zehatzak aipatzen ez dituzten akusazio orokor eta hutsalekin lotzen da. ●

Lizarra ●

# Pintura Lehiaketan parte hartu zuten lanak ikusgai

Aurkeztutako 178 lanetatik 31 ikus daitezke, tartean saritutako hirurak

**Lizarrako Gustavo de Maeztu museoaren murruetan artea dago zintzilikatuta. Orain, Lizarra Hiriko III. Biurteko Pintura Lehiaketan parte hartu zuten obrak daude ikusgai.**

**G**USTAVO DE MAEZTU MUSEOAREN erabilerá anitzeko gelan daude eskegita obra guztiak, sarreran eta sotoan. Tartean Lizarra Hiria III. Biurteko Pintura Lehiaketan sarituak izan diren hiru obrak: *La medalla del espacio. Urbasa II, Cámara Cantacuzene* eta *Down*. Lehenengo saria lortu zuen lana, *La medalla del espacio. Urbasa II*, Joxerra Melguizo arabarraren margolana da. Oihalean, artistak naturarekin duen harremana islatu du. Lana argazki baten gainean egina dago, eta irabazleak 500.000 pezetako saria lortu zuen. Bigarren lana, *Cámara Cantacuzene* jaiotzez Hondarribikoa den artista batek egina da, Eugenio Ortizek egina. Egileak urdin kolorearen hainbat nabardura erabili ditu obran, itsasoaren sakontasunari omenaldia eginez. Geometria ere berezia da haren artelanean, eta olerki batek sortaritzen duen sentimendurekin konpara daitekeela esaten dute adituek. Lanarekin 300.000 pezeta jaso ditu gipuzkoarrak. Hirugarren lan saritua, *Down*, Florencio Alonsoren artelana da. Lizartarra

bera, teknika erabat garbizalea erabili du. Juan Manuel Bonet arte kritikariaren ustez, «materialen elaborazioa oso zaindua dago lanean. Abstrakzioari egindako aipamena ahan-tzi gabe, sotiltasuna nagusitzen da haren lanean», nabarmendu du.

**Espazio arazoak**

Lekurik ezean, erakusketara aurkeztutako 178 artelanak ikusteko aukerarik ez du izanen museora hurbiltzen den pinturazaleak. Hori dela eta, antolatzaleek lan esanguratsuenak aukeratu eta, lan sarituz gain, beste 28 artelan eskegi dituzte museo hormetan. Tartean, maisu apartak direnen lanak ikus daitezke: Jose Ramon Amondarain, Jorge Cardarelli, Juan Maria Sukilbide eta Alfonso Askunzeren margolanak, besteak beste.

Lizarrako Hiria Biurteko Pintura saria Udalaren eta Gustavo de Maeztu museoaren ekimen bateratua da. Lehiaketaren xedea, artea bultzatzea izateaz gain, Lizarrako hiriaren izena ezagutzera ematea ere bada. Era berean, Lizarrako Udalaren pintura bilduma osatzeko balio du lehiaketak. Izan ere, astiro bada ere, Udala arte bilduma interesgarria osatzen ari da, saritzen dituzten lanak hark bereganatzen baititu.

Erakusketa maiatzaren 10a arte egonen da zabalik: 11:00etatik 13:00ak arte eta 17:00etatik 19:00ak arte astean, eta 11:00etatik 13:30ak arte jaiegunetan.

→ Kristina Berasain



*La medalla del espacio. Urbasa II, Lizarrako Hiria III. Biurteko Pintura Lehiaketan lehenengo saria irabazi zuen artelana.*

KRISTINA BERASAIN



**herri aldizkariak**

Eduñe Elizondo

**Aralarko Parke Naturala**

Aralarko Parke Naturalari buruz egin du **Mailope** aldizkariak bere azken zenbakiko erreportaia: «Aralarko Baliabideen Ordenaziorako Plana egina dago, eta orain alegazioak edo ekarpenak egiteko garaian gaude. Hauxe da deklarazioaren aurreneko pausoa. Horretarako beharrezkoa zen txostena biologo talde batek egin zuen, eta bertan, Aralarko baliabideak aztertzen dira, aurrerantzean erabilera egoki bat eman ahal izateko. Parkeak eragina handia izanen du zonaldean. Araitzen mailopeko malkorretatik hasiko da, eta Betelu, Intza, Gaintza, Uztegi eta Azkarateko komunalak harrapatuko ditu. Larraun aldean ere herri mordoa hartuko du. Errazkinen Parkea mailopetik hasiko da, Baraibar eta Iribas herriak osorik hartuko ditu, eta Alli, Astiz, Oderitz eta Madotzen, berriz, Parkea errepidearen eskubiko aldetik hasiko da».

**Mailope**-n ageri denez,azienda ugari hartzen dute Aralarko zelai eta basoek: «Aralarko rasoetan, guztira, 7.408 azienda buru daude, egin diren estimazioen arabera. Ardia da azientariki inportanteena, 6.954 bururekin. Behien kopurua 474koa da, eta behorrena, berriz, 340koa. Aralarko parkearen eremurik handiena raso da, zuhaitzen artean pagoa nabarmentzen delarik leku altuenetan. Beherago eta eguzkiak goz ematen duen lekuetan, ordea, haritza da nagusia».

**XORROXIN IRRATIA** Euskalduna hitza bertakoa bihotza



Heldu direnak :  
Malatzak 2, ERRATZU

**Apirilak 24**, ortzirala ITUREN, Herriko Etxeko Sabaian. 10etan

POTTOKA eta PETTI

**Apirilak 25**, larunbata ARANTZA.

Ekaitza Elkartearen. 11etan

POTTOKA eta PETTI

**Sakanako Guaixen aldizkariak honako langilea behar du:**

**KOMERTZIALA**

▼ **Esikatzen dena:**

- ✓ Euskara maila altua izatea, ahoz eta idatziz.
- ✓ Gidatzeko karneta eta autoa izatea.

▼ **Baloratuko dena:**

- ✓ Lan komertzialetan aritua izatea.
- ✓ Marketing eta publizitate ikasketak.
- ✓ Informatika alorreko ezagutza.

**Interesatuta dauden pertsonen beren kurrikulumak eraman beharko dituzte honako helbide honetara:**

GUAIXE aldizkaria / Barrenkale, 24. / 31810 Urdiain (Nafarroa). Bidaltzeko azken eguna apirilaren 30a izango da.



# Amiamokoa, luze zabaltzen ari den hegaztia

Gurelurren egindako kontaketa arabera, 249 bikotek dute egun habia Nafarroan


**Amiamoko zuriaren populazioak nabarmen egin du gora azken urteotan Nafarroan. 80ko hamarkadan desagertzeaz egon bazen ere, egun gero eta ugariagoa da. Azken urteetako datuak ikusi besterik ez dago: 1996an 154 bikote ziren, eta orain badira 249.**

gainera, badira beste zazpi bikote habirik gabeak baina bikote jarrera azaldu dutenak. Antonio Munilla Gurelurreko kideak dioenez, azken urteetan gertatzen ari den hazkundearen interesgarria da oso. «Zenbaketak egiten hasi ginetik populazioa gora doa. Dena den, hazkunde ez da bakarrik Nafarroan gertatu, baizik eta amiamokoa egoten den beste herrialdeetan ere bai». Munillaren arabera, hazkunde modu naturalean gertatu da.

## Hazkunde nabarmena izan duen hegaztia

Atzean gelditu da 80ko hamarkadan Europan izan zuen populazio atzerakada nabarmena. Orduan galtzeko arriskuan zegoen espeziea bazen ere, egun, inguruneak lagundurik, gora doa nabarmen. Gurelurrekoek diotenez, ez dago datu zientifikorik hazkundearen zergatia zertan den oinarritzeko. «Hazkunde gertatu da negu hobeak egiten hasi denez geroztik. 1988an 37 bikote ziren eta egun 247 dira. Hamar urteotan amiamokoaren populazioa

ausarki igo da», azpimarratu du Munilla. Jakina denez, espezie guztiek badute beren tokia naturaren katean. Espezie migratzaile batek, amiamokoa kasu, behin habia egin eta gero, badaki zein diren habiarentzako arriskuak, jatekoa nola lortu eta arriskuetatik nola babestu. Beraz, ezagutzen duen tokian dagoen bitartean gutxi akabatuko dira. Baina, zikoina hegazti migratzailea izaki, migrazio garaian du hegaztiak arriskurik handiena: lehortea eta hari elektrikoekin izandako istripuak. Hortaz, migrazioen ondorio da, batez ere, populazioaren jaitsiera. Azken urteotan eguraldia aldatzen ari den heinean, amiamoko zuriak ere bere ohiturak aldatu ditu. Orain neguak gero eta epelagoak dira eta horrek eragina izan du hegaztiaren jarreran. Hori dela eta, egun amiamoko askok ez dute migrazioa, eta Espainiako hegoaldeko edota Afrikarako lur epelertarako joan-etorriko bidaiak eragiten zituzten bajak ez dira gertatzen. «Zikoinari ez zaio tiro egin edo pozoia jarri. Beraz,



## Urte oso lana

Gurelurrek hegaztien aldeko hainbat kanpaina egiten dituzte urtean zehar. Ilundain herrian hegazti zaurituak sendatzeko zentroa du, eta Ibañetan hegazti migratzaileak zaintzeko eta ikuskatzeko behatokia. Amiamokoaren kontaketa bukatu berria badute ere, urte osoan aritzen dira hegaztien aldeko lanean. Noelia Lopez eta Iñigo Petri biologoak arduratzen dira kanpainaz. Elkarteak 40 boluntario baino gehiago ditu kanpainotan aritzeko. Aste Santuko oporrak erabili dituzte amiamokoak


dauden herri guztietako hamabi bat lagunek, zoro eta habian arazoren bat badutzeko. Orain bikoteak erruntza, eta batzuek atera dituzte lemeak. Uda partean, behin kumeak dira, gaitzen bat edo arbat duten zikoinak laguntzen dituzte migrazio garaia iritsiko otean direla aprobetxatuz, habiarentzako ekinen diote Gurelurretik otsaila bitartean. Habirak kendu eta artifizial berriezkatu ohi

dituzte. «Orain behin baino gehiago begiratzen da. Lehen gutxi ziren eta herrietako eraikin handienak hartzen zituzten, baina orain, askoz gehiago direnez, ongi erreparatu behar da», dio Noeliak. Dena den, ez omen da mirotzak ikustea bezain zaila. «Horiek zitu landetan egoten dira, eta, begetazio bateratu handiak direnez, oso zaila da antzema-tea. Barruan sartzen dira eta ez duzu erreferentziarik. Aldiz, zikoina habiak gora begiratu ikusten dituzu», azaldu digu.

kokatu ohi dira. «Habiak tapotz edo buxu bat dira. Ura, hodieta behera joan beharrez, hor gelditzen da, habiak xurgatu egiten duelako. Denboraren poderioz iragazten doa. Badira Nafarroan elizak XIV. mendeko freskoak dituztenak, eta amiamoko habia batengatik hondatzea ez da zilegi. Hori dela eta, habia hori kendu egin behar da, igo, ura behetik bere bidea eginez pasa dadin», azaldu du Munilla. «Pentsa nolako habiak egiten dituzten. Azagran duela gutxi kendu genuenak 2,5 metro altuera eta 2,10eko zabalera zuten, eta pikaxoia eta palaren laguntzarekin 3.500 kilo zikin-keria atera genuen». Hori guztia aintzat hartuz, arazoak ematen ez dituen habia bakarra makal batean kokatzen dena omen da, baina Nafarroan bi kasu bakarrik ezagutzen dira, Gareskoa eta aurten Berbitzanan ezarri den bikotearena. «Habiak zuhaitzetan kokatuko balituzte hobe litzateke, jartzen diren eraikinetan izaten diren hainbat arazo ez liratekeelako gertatuko hala», dio Munilla etsita. Dena den, hori lortzea nahiko zaila da, amiamokoak garaiera behar duelako, zenbat eta gehiago orduan eta hobe.

«Zikoinak goratasuna nahi du. Gaizkiago edo hobekiago kokatua edo orientazio onagoa edo txarragoa izan, gora egon nahi du. Zikoina segurua sentitzen da goi-goian; jaitsi izan ditugu habiak, eta hurrengo urtean kendutako toki berean kokatzen dute. Bi metro pasatxoko hego-luzera eta hanka handiak dituen hegaztia da, eta istripu asko izaten ditu. Hori dela eta, goian egon nahi du, inguruan ez du nahi eraikinik edo traba egiten dion beste gauzarik», diote Gurelurrekoek.

Habiak eraikinetzako kaltegarri diren moduan, kaltegarriak izan daitezke amiamokoentzat ere. Garai batean habiak landetan aurkitutako lastoz egiten bazituzten ere, egun zabortegetan aurkitzen dituzten gomak, plastikokoak eta alea pakatzeko erabiltzen diren sokak eramanen dituzte habia egokitzeko. Kumeak hanketan trabatu eta hil egiten dira, itota edo odol-zirkulazio faltan. Horregatik, habia txukun eta toki egokian egotea premiarioa da, eraikinari ez kalterik ez egiteko.



Zikoinak behatzea da, beste gauza batzuen artean, Gurelurrekoen lana. LUIS AZANZA

teaz gain bikotearen ondorena ziurtatzen delako horrela. Bestalde, amiamokoak arazoak sor ditzazke Erriberako herrietako eraikinetan, han kokatzen baita batik bat. Aurten Tuteran badituzte 44 bikote, Corellan 37, Cortesen 17 eta Milagron 15. Dena den, amiamokoak Irutetk gora ez ikustea ez da eguraldi hotzaren kontua. Gurelurrekoen irudiko, amiamokoa Erriberan kokatzen da jatekoa errazago eta ugariago aurkitzen duelako. «Zikoinak, landaretza izan ezik, denetik jaten du: apoak, ige-lak, satitsuak, saguak, arrainak, sugeak, eta haratustela ere jaten dute. Laborantzako lurretan neguan zein udaberrian elikatzen da goldatzen ari diren lurretan, eta han aurkitzen ditu lurrak irauli ondoren agerian gelditzen diren kakalardoak, zizareak eta hainbat intsektu». Era berean, herrialdean hegoaldeko herrietan monumentu gehiago egoteak ere ba omen du eragina. «Non dago amiamoko gehien? Tuteran eta Corellan, monumentu asko dauden tokietan, alegia. Altuak eta zaharrak diren eraikin ugari dituzte. Horrek guztiak baldintzatzen du amiamokoaren bizitza: janaria eta habia jartzeko toki egokia dagoen lekura joanen baita», bukatu du Munilla.

→ Irene Arrizurieta



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Euskal operaren lehen hatsarriak: Etienne Decrept Etxemaite (I)

**Euskal operaren barruan lehenbiziko urratsak eman zituztenen artean, zalantzarik gabe, Etienne Decrept geneukake; lapurtar honen lana, bere uztarkide musikala zen Charles Colinen lanarekin batera, lehenengo euskal operaren adierazgarri hauta zitzaigun.**



**E**tienne Decrept Etxemaite Baionan sortu zen, 1868.eko azaroaren lehenengo egunean. Parisko dekorazio-arteetako ikastetxean ihardun ostean, aitarekin lan egin zuen margolari Ipar Euskal Herriko eliz aunitzetan dekoratzaile lanetan, baita Bearnekoetan ere. 1912.eko irailaren 28an Donapaleun egin zen Euskaltzaleen Biltzarreko batzarrean lehendakari aukeratu zuten, eta zeregin hartan iraun zuen zortzi bat urte, harik eta 1920.eko irailaren 30ean Uzta-ritzen eginko bileran arta horrezaz askatu zuten arte. Bizi Bidarten bizi zen, eta hango auzapezarekin lankidetzan, hainbat poesia-lan largatu zitzaigun, esate baterako *Bidarteko lamiña*, 10 ahapaldiko olerkia, Baionako Foltzer baitan 1911. ean orrialde bakan batean agertua: «Gau batez hazillan / lehor bidez nindabillan...». Bidarten ere hil zitzaigun 1938.eko maiatzaren 8an, eta horren kariaz, Lafitte nekrologikoa agertarazi zuen *Gure Herria*-n, horrelakoetan jazo ohi denez, okerturiko guztien arteztagarri: «*Était d'une rare indépendance de pensée et ses paradoxes n'étaient pas du goût de tout le monde, qu'il s'agit de politique, de littérature, ou de linguistique. De là dans certains milieux une sorte d'opposition qui en lui pardonnait pas grand'chose.*

Decrepten alor literarioak, oraino ere ezezagunak diren arren, bai olerkian, bai narratibian eta bai antzerkian kokatu beharrekoak dira. Olerkigintzan alpatua geratu da jada Bidarteko alkatearekin eginko lana; narratibian, aldiz, 1913.eko *Euskal Esnalea*-n lagin ezin interesgarriagoa dugu irakurgai diogunaren bermagari, J.B. Daranatz eskeini Pello kontaera, hots. Alabaina, antzerkigintzan tajutu zuen lanik gehien, edo zehazkiago



esanda, Charles Colinen musikarekin mihizaturik apailatu zituen operak ditugu Decrepten ekoizpenaren adierazgarri nagusia, nahiz, tamalez, eta segituan dakusakegunez, gutxiz gehienetan taularatu gabe geratu ziren.


Bere lehenbiziko opera izan zen *Maitena* 1909.eko maiatzaren bostean jokatu zen estreinakoz Bilboko Campos Eliseos zeritzan antzokian, hango Elkarte Koralarren eskutik, eta Jose Powerren nahiz Aureliano Valleren zuzendaritzapean. Uztaturiko arrakasta arras ozena izan zen, eta zetozen egunetan zazpi aldi gehiagotan bederen taularatu zen Decrepten lana, baita aldizka lantzean behin hurrengo urteetan. Geroxeago ere, Gasteiz, Dospitala eta Iruñean ikuskatu ahal izan zen. Iparraldean, ordea, 1913.eko irailaren 22an estreinatu zen, Hendaian hain zuzen ere, eta turismoari begira burutu asmo zen *Antzerkia kaleankanpainari* hasiera emateko; hartan, gora handiko kantariak hartu zuten parte, Louis Gallinik zuzenduriko orkestrarekin, baita Donostiako orfeoiaekin ere. 1928. ean Madrilen egin zen Melillan zauritutako alde, eta 1930. ean Hossegoren eta Donibane-Lohizunen. Alabaina, jokaldi guzti hauetan, ez zitzaion Decreptek idatziari zehatz-mehatz jarraiki. Bilbon, euskerak pairatzen zuen egocoraren islada, libretoa gaztelaratu zen, Alfredo Etxabek egin zuen lana, eta argitara eman

zen lehenbiziko testua izan zena bestalde, Bilboko Elexpuru anaien etxean 1909. berean. Lan honen erreseña bibliografikoa egin zuen Lacombe geurzko RIEV aldizkarian: «*Cet opuscule est une version libre en prose très abrégée, faite p. M. Alfredo Echave, de cette pastorale lyrique qui a été représentée dernièrement avec un grand succès. Nous nous bornons à annoncer son apparition, car on a publié dans le même numéro de la revue, le texte labourdin complete, qui est en grande partie inédit, de cette oeuvre littéraire*», eta halaxe izan zen, bada, aldizkariaren ber zenbakian Decrepten euskal testu osoa eman baitzuten argitara, Decreptek Urkixori igorri gutun batekin, *Lettre sur le théâtre basque*, orobat 1911.eko *Euskalerraren Alde* paperean gaztelaratu ere ageri zena. Hendaian eginko jokaldirako ere, frantses aldaera erabili zen, aurretik ere, Baionako Lamaignéren 1910. ean eginko edizio elebidunean, euskaraz eta frantsesez, agertu zena. Colinen partiturek ez zuten horrenbesteko loratze editoriala, baina atera ere egin ziren, 1910. ean, Bilboko Dotesioren etxean, kanturako eta pianorako laburtuak.

Ez zen honakoa, ordea, euskaraz eginko lehenbiziko opera; Arana Martijaren esanetan, ohore hura Alzaga-Zapirain bikoteari zegokion *Txanton Piperr* lanarengatik, Donostian 1899. ean lehenengo aldiz antzeztu zena. Alabaina, euskal operari hasmenta eman zioten lehenengo lanen artean bazegoen Decreptena; Arana Martijaren aburuz, benetako euskal opera abertzaletasun berriak bultzaturik sortu zen, euskal gaiei buruz egin, euskaraz eta euskal ondare musikalaren gainean eratutako partiturekin, eta honelakoxea zatekeen Decrepten *Maitena*.

etorri ahalean

Patziku Perurena



## Eske, gu beti eskean

**B**AI, ESKEAN GU BETI USARIOZ. Eguberri aurretik hasi eta San Joanak arte. Bien bitartean, santu eta santa mordoska aitzaki, beti eske festarako prest. Nondik ote datorkigu ohitura mixerable? Bistan da, ertaro hurrunetik honuntz, erromes bideko jendeolde alderrai halamoduko askorengandik geurenagatua dugula. Paper zaharrak pittin bat aztertzen hasi ezkerro, ederki sumatzen da hori. San Blas, esate bateko, XII. mendeaz geroztik erromes milagrero eta behartsu eskazaleen zaindari izan zen. Beletekoa horren lekuko. Santa Ageda, beren haurrak bularretik zintzilik negarrez zeramazkiten ama eskazale urrikalgarriena, etabar... Dudarik gabe, jendajerik negartienak, ijitoenak eta deserrotuenak, erlijioa eta karitatea aitzaki, herrian herriko jende izandun errotua urrikaltzeko erabiltzen zuten martingala dela eskekanten hori, eta urrikaltzen etzenari benganza. Gure folkloreak, gizaerak, asko zor dio jendaje alderrai teatrero horri, baina, endemas eskekanten moldea. Halare, R. M. Azkuek, bere kantutegian, eske kantuen saila azaltzerakoan, honela dio: «Hay una curiosa canción que aprendí en Hazparren con el nombre de *Canción de gitanos*. En vez de incluirla entre los demás voy a presentar aquí:

Heldu nuzu urrundarik gaua bidean emanik, gaua bidean emanik eta ihaute dela entzunik.

Etxeko andere galanta begia duzu xarmanta, zure eskutik desiratzen dugu xingarra eta lukainka.

Etxeko andre, ¿nun zira? hila ala bizia zira? lehenengo hura balin bazira, emazte galanta zira.

Alguna que otra razón se ofrece para dudar del gitanesco origen de la pieza. No recuerda uno haber oído cantar a esos descendientes del pueblo de los Faraones, ni leído que se dedicaran jamás a tal arte.

Harri eta zur gelditu nintzen hori leitzean. Eta ondotik honela esaten du: «Hay, sí, algunas canciones populares referentes a los gitanos; como p. ej. aquella canción infantil:

Buhameak badakite trikun-trakun egiten, trikun trakun egiten eta oilaskoen ebasten.

Buhameak badakite oilaskoen ebasten, oilaskoen ebasten eta sasipean gordetzen.

Itsuak ere ikus lezake, kanta hori inoiz ez lukeela sortuko ijito batek, baina bai bere ijitoasuna estali nahiko lukeen batek, edo beste edozeinek jitoen kontra. Honen aurreko kantak ordea, ijito eskazale tipikoak sortutako letani negartiaren ezaugarri guziak ditu, euskal eskekantatan ugariarik diren ezaugarriak, hain zuzen.

Baina, usuario osoa, salbuespen moduan ere ez zuen onartu nahi Azkuek. Egia ondradu bat ukatu zuen euskal jatortasun faltu baten gorantzan. Ez da bakarra, J.M. Barandiaran barne, euskal folklore eta etnologia guziko gaitz nabarmenak. Horregatik, jitanismo euskalduna, gero eta ilunagoko leize baten gisa nabari da euskal sikologiari. Etsenplua: ijitoen kontrako barbaridarririk haundienak, ijito euskaldun biren ahotik aditu ditut herrian, bat JELkide eta bestea ETako izana.

Gero, ordea, eskekontu zaharkitu barriobajerook euskal usuario jatortzat hartu, eta are susperutu nahian, beren aingerutxoak eske- ra bidaltzen dituztenean, esaten dut neure baitan: «horratx: barren barrerik ijito izaten segitzen ditek oharkabean». Aingerutxoak noski, badakit gehienak, ertaroko erromes giroaz geroztik bertakotu diren orotariko jitoeria alfer, pestazale, negarti, teatrero, eskazale haien ondorekoen ondorekoak ditugula, baina, euskal esentziak berrituz oraindik hola eskean ikustean, pena ematen ditate, eta muturrera ixten dietatea, damba!

## Ziria

• Motxorrosolo •

250 milioi

**K**ONTUAK KONTU, HONA HEMEN IPUINA. TELEBISTA PUBLIKO BATI 250 milioiko dirulaguntza eman, barne-produkzioa lantzea helburu. Egiazki, Iruinlarrean den Unibertsitateak sortu ekoiztetxeak jasoko du dirutza horren puskarik handiena. Asmakizunak ez du funtzionatuko, ez da lehiakorra izanen, laguntza ezbaian jarriko da. Hondarrean, kalitate eta lehiakortasunari kasu eginez, Cordovillako telebistarantz zuzenduko dute sortu den aurrekontua. On egin.



# Manu Arrastia

☉ Foresna-Zurgaiako teknikaria

## «Baso-berritzea bazterreko afera da»

**Nafarroako Gobernuo Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Sailak nekazaritza lurak baso-berritzeko kanpaina abiatu du.**

**Zurgaiak, Nafarroako Baso Elkarteak, informazioa, tramitazioa eta ahulkularitza eskaintzen dio interesatuari. Manu Arrastia elkarteko teknikariaren ustez, Gobernu egiten ari den baso politika ez da egokia.**

**N**AFARROAN DAUDEN 14.000 baso-lur jabeen interesak defendatzen ditu Zurgaiak. 1992an sortu zenetik ari da Manu lanean. Hitzuna izaki, piztu egiten da herrialdean basogintzan egiten den lanaz mintzatzeari.

■ **Nekazaritza lurak baso-berritzeko Nafarroako Gobernu egiten ari den kanpainaren helburua zein da?**

Europako Batasunak daukagun ale soberakinaren landaketa kendu nahi da eta lur horietan, ordainetan, kalitatezko egurra sortu, dagoen defizita ordaintzeko. Bigarren asmoa bete da Batasunean Iparraldeko herrialdeak sartu direlako, baina nekazaritza lurren soberakinak hor dirau, eta lur horiek kendu nahi dira. Dena den, helburu hori ez da betetzen ari.

■ **Zergatik?**

Baso-berritzen ari diren lur sailak balio gutxikoak edo produktibitate eskasekoak dira. Ale soberakina kendu nahi badugu eta kalitatezko egurra izan, egokiena litzateke Iruñerrian landatzea, lur emankorrak eta handiak direlako. Baina Iruñerrian ez da zuhaitz bat ere landatzen, nekazaritza produktiorako oso toki ona delako. Bestalde, bada beste kontratsan bat. Laborantzarako toki produktiboetan Europak ematen dituen diru laguntzak uzta eta laguntzen artean landaketetarako ematen direnak baino gehiago dira; beraz, ez da zaie interesatzen landatzea.

■ **Non landatzen da gehien?**

Hasieran, Erriberan landatzen zen gehien. Orain, berriz, Goizueta da gehien sartzen duena. Badute baso ohitura, baina Nafarroako Gobernuak ez du nahi Goizueta baso-berritzea. Mendialdekoak eskatzen hasi zirenean, Goizuetakoak kasu, ez zuten nahi.

### soslaia

Manu Arrastia basogintza teknikaria da. Palentzian ikasia, Foresna-Zurgaiak egiten du lan 1992tik, sortu zenetik. Zazpi bazkide zituztela hasi ziren lanean, eta egun 350era iritsi dira. Horien artean 30 udal daude. Bazkide gehien dituen herria Goizueta da.


Lizarrerriko Arellano herrian bizi da, eta joan eta etorri egiten du egunero. Ogibidea ez ezik, afizioa ere badu basogintza. Elkartean sartzen dituen orduak gutxi izan ez eta, allepo pinuak landatu ditu anaiarekin batera. Haiek ureztatzea joaten da noizean behin.

Elkarteak uzten dion denboran, traktorean igo eta herrian dituen lur sailak ereitera joaten da, horrek asko lasaitzen omen du eta. Bestaldea, bidaiatzea oso gustuko du, eta, maiz egiten duen arren, laneko aferak moldatzeko eta ikastaroak egiteko mugitzen da beti. Trebaketan egiteko asko dagoela dio. Arrastiaren iritziz, askoren ustea kontrakoa izan arren, Nafarroan ezpal asko eta zuhaitz gutxi daude.

Orain mendialdean zein Erriberan egiten dira. Nekazaritza ari denean, Administrazioak Erriberan bakarrik pentsatzen du. Ez dira gai Nafarroa osorako plan bat egiteko.

■ **Idea esfortzuak batzea bada ere, helburua ez da betetzen. Zer egin daiteke hori moldatzeko?**

Korapilatsua da. Birlandaketa



● LUIS AZANZA

«Baso-berritzen ari diren lur sailak balio gutxikoak eta produktibitate eskasekoak dira. Ale soberakina kendu nahi badugu eta kalitatezko egurra izan, egokiena Iruñerrian landatzea litzateke. Baina ez da egiten»

egin nahi baduzu, gutxienez bi hektarea izan behar dituzu, eta elkarteek lau. Baina helburu argi bat lortzeko, beharrezko litzateke baso politika argi bat izatea eta lortu nahi denari sustengu ausarta ematea. Egundur lur sailen kontzentrazio asko egiten ari dira eta nekazaritza sektorea eraldatzen ari da, baina basoen gaia ez dago argi. Beraz, ezinezkoa da helburu argi bat aurkitzea sustengu irmoa ez dagoen bitartean. Nekazaritzan Europako laguntzak dauden bitartean, baso-berritzea bazterreko afera izanen da. Nekazaritzarentzako errentagarriak ez diren aldeetan baso-berritze plan argi eta erabakigarria egin beharko litzateke, gerora baso industria sortzeko. Orain oso zati txikiak eta sakabanatuak landatzen dira, eta egur horrek ez du ezertarako balio.

■ **Eta Administrazioak zer egiten du?**

Lehenengo aldia da nekazaritza eta basogintza batzen direna. Alor teknikoa basozainek uzten zaie, eta alor ekonomikoa nekazaritzak gordetzen du. Beraz, Nekazaritza Sailak antolaketa egiten du nekazarien interesen arabera, eta basoentzako ez dago estrategiarik. Hori ezean, saiatzen gara baso-berritzea ongi egiten eta nekazaria zer sartzen duen ohartarazten.

■ **Beraz, basogintza baztertu eta aintzat hartzen den bakarra nekazaritza politika da?**

Bai. Nekazaritzak erabakitzen du zer egin, eta baso elkarteak saiatzen da gauzak ongi egiten, baso irizpide egokiek. Espeziei aukeraketa eta abar basozainek egiten dute, gainerakoan nekazariak onura gehien ematen duen

landarea landatuko luke, aintzat hartu gabe dituen lurra eta baliabideak. Diru asko erabiltzen da, milioiak eta milioiak: landaketarako, bost urteko mantenimendua egiteko eta nekazaritza lur saila uzteko 20 urteko diru ordainak ematen dira. Helburua 5.000 hektareara iristea zen, baina erdia bakarrik landatu da. Aurrekontua garrantzitsua da, baina politikoki marjinala da. Nekazaritza Sailak nekazaritza sustengatzen du: nekazaritzako elikagaien industria eta ureztapenak, baina nekazaritzak basogintza laguntzea tokiz kanpo dagoela dirudi. Horregatik ez zaio behar adinako garrantzi eta publikitaterik ematen, nahiz eta nekazarietako oso alternatiba ona den. Baso-berritzerako ematen diren laguntzak onak dira. Jakinda Europako laguntzarik gabe Nafarroako nekazaritzaren erdia ez dela errentagarria, bultzatzen laguntza gabe baso-berritzea. Nafarroako baso-berritzerako dirulaguntzaren erdia Europak ematen du, eta garrantzitsua da. Gero sektorea asko mugitzen da, eta hori errentagarria da.

→ Irene Arrizurieta



## BEKARIO!

patxi@earthling.net

Maikele  
eta PRIMITIBO



## Nafar Kronika

Fermin Erbiti

### Pilotaren egoera

**J**ULIAN RETEGIK MANOMANISTARI buruz eta, oro har, pilotari buruz lehengo egunean Bizkaiko egunkari batean idatzirikoaren oihartzun ezak harriturik utzi nau. Denok badakigu eratsundarra ez dela egunero periodikuetan agertzen saiatzen diren horietakoa. Are gehiago, nik uste txapeldunak zama astuntzat duela noizean behin kazetarien aitzinean agertu beharra eta, horregatik, ahaleginak egin ohi ditu pilotari lana frontoira mugatzeko.

Egunero eta edozein gairi buruz hitz egin-pontifikatzen dutenen iritzien oihartzuna hain handia izanik, harrigarria da pilotaririk hoberenak dakienaz iritzia eman, gauza larriak bota eta horrek hemengo komunikabideetan aipamenik ere merezi ez izana.

Gatozen hariña: Retegiren iritzirako manomanistan, benetan lehen mailakoa balitz, lau pilotarik bertzerik ez lukete parte hartuko horretarako behar den kalitatea lauk bakarrik dutelako: Arretxe, Eugi, Beloki eta (agian) Elkoro. Frontoietan antolatzen diren partidu gehienak kalitate eta interes eskasekoak dira, afizionatu mailatik profesionalerako saltua errazegia da, pilotarien batez besteko maila jaisten ari da... horiek dira kritiketako batzuk. Erabiltzen den materialaz, telebistaren eraginaz eta enpresen jokamoldeaz ere kezkatutik eta haserre agertzen da eratsundarra. Laburbilduz, pilota oso egoera larrian dago horretaz inork baino gehiago dakien profesional baten ustez. Ni ere Coca-Colarekin eta errioxarren bonboiekin kezkatzen hasia nintzen, baina, dirudenez, badira bertze arazo batzuk haiek baino sakon eta larriagoak. Retegik horien berri argi eta zehatza eman du. Haizeak hitzak eramaten dituenaz, idatzirik utzi du artikulua batean. Momentuz inork ez du deus erantzun. Isiltasuna hemen ere esanguratsua da.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Lekunberri:** Euskararen aldeko gaupasa egingen da bihar frontoian, gauerdian. Kontzertuan joko dute Jose Ripiau eta Etzakit taldeak.
- **Tutera:** Ceske Budejovice Orkestra Filarmonikoak kontzertua eskainiko du bihar, 20:00etan, Gaztanbide antzokian.
- **Altzoain:** Artsaia aretoan Ekon eta Brigada Slam ariko dira gaur, 23:30etan. Sarrerak 600 pezeta balio du. Bihar berriz, Garik joko du ordu berean. Sarrerak 800 pezeta balio du.
- **Iruñea:** Gaztetxean kontzertua eskainiko dute Skalariak eta Malarians taldeek bihar 21:00etan. Sarrerak 500 pezeta balio du.
- **Iruñea:** Liam O'Flynnen kontzertua izanen da etzi Gayarre antzokian 21:00etan. Sarrerak 2.800 edota 2.500 balio dute.
- **Iruñea:** Datorren ostegunean Beñat Achiaryren musika emanaldia izanen da Erraldoien Txokoan, 20:00etan.
- **Iruñea:** Fermin Muguruza eta Dut, Inadaptats eta Lif taldeek kontzertua eskainiko dute Txantrean heldu den ostegunean.

### ERAKUSKETAK

- **Barañain:** 'Eskubideetatik egiteetara' erakusketa ikusteko aukera dago Kultur Etxean, maiatzaren 15era arte. Mugarik Gabe eta Amnistia Internazionalak antolatua.

### ANTZERKIA

- **Altsasu:** Pasadas las 4 taldeak *Baby boom en el paraíso* antzezlanaren taularatuko du gaur 21:00etan.
- **Castejon:** *Baby boom en el paraíso* eskainiko dute bihar 18:00etan Kultur Etxean.

### BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Donibaneko jaietako kartel lehiaketaren oinarriak kalean dira. Partehartzaileak auzo horretako jaiak izanen ditu gai eta ezinbestekoa da 'Donibaneko jaiak 1998-Fiestas de San Juan' paratzea kartelean.

- **Antsoain:** Truke kulturala taldeak ipuinak kontatuko ditu euskaraz gaur. Ekitaldia 17:30etan izanen da Liburutegi publikoan.
- **Iruñea:** 'Kultura nazio erakuntzan' hitzaldia eskainiko du Alicia Stürtzek Zaldiko Maldikon datorren asteazkenean, 20:00etan.

- **Iruñea:** Ortzadar euskal folklore taldeak 'Ipuinak' ikastaroa antolatu du maiatzaren 4tik 13ra arte. Virginia Albira ipuin kontalariak zuzenduko du ikastaroa eta, alde teorikoa ez ezik, alde praktikoa ere landuko da. Izena emateko edo informazioa jasotzeko, 22.31.07 telefonora deitu.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini